

KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGU-AGIRIA

INGURA

**EUSKARA ONLINE IKASTEKO PLATAFORMARAKO
A2 EUSKARA MAILAKO EGOERA-BIDEOEN EKOIZPENA.**

ZERBITZU-KONTRATUA

ESPEDIENTE ZENBAKIA.: G23/606

AURKIBIDEA: KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKOAK.....

2

I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK.....

- 1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA
- 2.- KONTRATU-DOKUMENTUAK.....
- 3.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA
- 4.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA
- 5.- PREZIOA ETA ORDAINKETAK
- 6.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO BETEARAZTEKO EPEA. LUZAPENA.....
- 7.- PUBLIZITATE-GASTUAK.....
- 8.- BERMEAK
- 9.- ASEGURUAK
- 10.- SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA.....
- 11.- KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK.....
- 12.- KONTRATUAREN FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN, GIZARTE EDO LAN ARLOETAKO BESTE BETEBEHAR BATZUK
- 13.- ZIGORRAK
- 14.- AZPIKONTRATAZIOA.....
- 15.- ZERBITZUA EMAN IZANA EGIAZTATZEA, HARRERA ETA BERME-EPEA.....
- 16.- KONTRATUA ALDATZEA.....
- 17.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK.....
- 18.- KONTRATUAREN OBJEKTU DEN PRESTAZIOARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK

II.- ESLEIPEN-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK

- 19.- ADMINISTRAZIO-ORGANOAK ETA ERREGISTROAK
- 20.- IZAPIDETZEA ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURA
- 21.- KAUDIMENA, SAILKAPENA, GAIKUNTZA, ETA BALIABIDEAK
ADSKRIBATZEA
- 22.- ESLEIPEN-IRIZPIDEAK
- 23.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK:
- 24. ARTXIBO ELEKTRONIKO BAKOITZEAN ETA KONTRATAZIO
PLATAFORMAN IGO EDO AURKEZTU BEHAR DEN
DOKUMENTAZIOA
- 25.- ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK
AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK
- 26.- PROZEDURARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK:

III.- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK

- 27.- KONTRATUA LAGATZEA.
- 28.- GIZARTEKO, INGURUMENEN ETA PROZEDURAN ETA
KONTRATUAN SARTUTAKO BESTE POLITIKA PUBLIKO BATZUEN
INGURUKO ALDERDIEN JARRAIPENA EGITEKO KOADROA.
- 29.- KONFIDENTZIALITASUNA ETA DATU PERTSONALEN
TRATAMENDUA
- 30.-ERREGIMEN JURIDIKOA: ARAUDI
EZARGARRIA.....
- 31. AURREIKUSITAKO EGUTEGIA

KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKOAK

I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK

1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA

1.1.- Definizioa: INGURA EUSKARA ONLINE IKASTEKO PLATAFORMARAKO A2 EUSKARA MAILAKO FIKZIOZKO LAUROGEI (80) EGOERA-BIDEOEN EKOIZPENA.

Egiteko zehatzak hauek izango dira:

- Zuzendaritza teknikoa: lantaldearen koordinazioa eta plangintza egitea
- Aurreproduktzio, produktzio, errodaje, postproduktzio eta egokitzearen tekniko-lanak egitea
- HABE-A2-Gidoien zehaztasunei jarraikiz, egoera-bideoak ekoiztea
- Aktoreen ardura eta zuzendaritza
- Bideoak azpituatzea

1.2.- Sortakako zatiketa: Ez.

1.3.- CPV kodea:

Objektua	Kode nagusia
Prestakuntza-eskuliburuak prestatzearekin lotutako zerbitzuak	92312212-0
Edizio zerbitzuak	79970000-4
Formakuntza pelikulak eta bideozintak ekoiztea	92111100-3

1.4.- Traktua: bakarra. Kontratuaren objektua osatzen duten prestazio-unitateen kopurua zehazki definitzen da: bai

2.- KONTRATU-DOKUMENTUAK

Plegu administratiboak, plegu teknikoak eta esleipendunak aurkeztutako proposamen teknikoa eta eskaintza ekonomikoa.

3.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

3.1.- Kontratuaren lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 80.196,48 eurokoa da.

Kalkulu hori egiteko abiapuntu gisa aldagai ekonomiko hauek izan dira oinarri.

- Lan kostua: 64.800 €
- Azpiegitura-gastuak: 8.424 €
- Industria-etekina: 3.888 €
- Guztira BEZa gabe: 77.112 €
- BEZa (% 4): 3.084,48 €
- Guztira BEZa barne: 80.196,48 €

3.2.- Aurrekontu-aplikazioa: 2022ko aurrekontuetan zera dago aurreikusia:

1.47130.60300 2021/000208

4.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia **77.112 eurokoa da, BEZa gabe.**

5.- PREZIOA ETA ORDAINKETAK

5.1.- Prezioa zehazteko sistema:

Ez da onartuko zehaztu den oinarritzko aurrekontua gainditzen duen eskaintzarik.

Guztira: 80.196,48euro (BEZa barne). 77.112 euro (BEZik gabe)

5.2.- Prezioa ordaintzeko modua:

Ordainketak egingo dira, epe partzialen atalean (6.3 atala) zehaztutako epeetan entregak egiten diren neurrian, beti ere, HABEk konformidadea edo adostasuna egiaztatu duen txostena egin eta 30 lan-eguneko epean (9/2017 legearen 198.4 artikulua xedatu bezala).

5.3.- Prezioak berrikustea: ez

6.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO BETEARAZTEKO EPEA. LUZAPENA

6.1.- Iraupen osoa edo betearazteko epe osoa edo mugaeguna: Bost hilabete.

6.2.- Hasiera-eguna: Kontratua izenpetu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

6.3.- Epe partzialak: HABEk honako mugarriak finkatu ditu:

Zereginak:	egutegia:
• 1. unibertsoa: 16 bideo (azpigitulu eta guzti) eta 16 audio-artxibo eta argazkiak • 2. unibertsoa: 16 bideo (azpigitulu eta guzti) eta 16 audio-artxibo eta argazkiak • 3. unibertsoa: 16 bideo (azpigitulu eta guzti) eta 16 audio-artxibo eta argazkiak	• 2023ko maiatza

• 4. unibertsoa: 16 bideo (azpigitulu eta guzti) eta 16 audio-artxibo eta argazkiak • 5. unibertsoa: 16 bideo (azpigitulu eta guzti) eta 16 audio-artxibo eta argazkiak	• 2023ko iraila
---	---

7.- Publizitate-gastuak. Ez dago.

8.- BERMEAK

8.1.- Behin betiko bermea: **BAI**. Zenbatekoa esleipen-prezioaren %5 izango da, **BEZa** kanpo.

8.2.- Harrera partziala bada, bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezereztea eskatu ahal izango du kontratistak: ez

8.3.- Bermeak honen alde eratuko dira: Euskadiko Altxortegi Nagusia
IFZ:S4833001C .

9.- ASEGURUAK. Kontratistak nahitaezko aseguruak eduki beharko ditu.

10.- SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA. Ez da behar.

11.- KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK

11.1.- Enpleguari buruzko baldintzak: Enpresa kontratistek bermatu egingo dute lan eremu eta tokietan segurtasuna eta osasunaren babesa eta baita sektoreko zein lurraldeko lan hitzarmenak ere betetzea.

11.2.- Genero berdintasun arloko baldintzak: Enpresa kontratistek saihestu egin behar dute emakumeen eta gizonen artean ordainsari-diskriminaziorik egotea (Gobernu Kontseiluak 2019ko martxoaren 5eko bileran onetsi zuen Kontratazio publikoan emakumeen eta gizonen arteko ordainketen berdintasunerako klausulak eta soldata arrakalaren kontrako neurriak jasotzen dituen instrukzioaren VII.1 apartatuan azaldutakoari jarraituz.)

11.3.- Kontratua gauzatzeak kontratistari datuak lagatzea dakarrenean, kontratistak Europar Batasuneko eta Espainiako estatuko datuen babesari buruzko araudia bete beharko du.

12.- KONTRATUAREN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN, GIZARTE EDO LAN ARLOETAKO BESTE BETEBEHAR BATZUK

12.1.- FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK:

a- Emandako gidoia zorrotz-jarraitu (plegu teknikoen 2.3 puntua).

b- Grabazio unean eta lekuan gidoigilearen edota HABEko enplegatuen presentzia eta oharrak jarraitzea, ahoskeran euskararen egokitasuna bermatzeari dagokionez (plegu teknikoen 2.11.3 eta 2.11.8 atalak).

- Postprodukzio fasera iritsi aurretik, kontraste lana egin ahal izateko aurre-entrega egitea (plegu teknikoen 2.11.7 atala).

d- Plegu administratibo partikular honen 11. klausulan azaldutako baldintza bereziak.

e- Prestazioaren atal jakin batzuk edo lan zehatz batzuk kontratistak berak egiteko daukan betebeharra, plegu administratibo honen 14.1 eta 18.2 klausulen arabera. Alegia, Prestazio nagusitzat joko da zuzendaritza, plangintza eta koordinazio lana eta hau ezingo da azpikontratatu.

f- Datu pertsonalen babesari dagokionez, kontratua gauzatzeko kontratistak datu pertsonalak tratatu behar baditu tratamenduaren arduradunaren izenean, honako hauek egin beharko ditu:

1.- Baldintza-agiri honetan jasotako xedea betetzea. Datuak xede horretarako laga dira.

2.- Kontratua formalizatu aurretik aurkeztutako adierazpen baten bidez kontratistak adierazitako zerbitzarien kokapena eta zerbitzari horiei lotutako zerbitzuak emateko lekua ez aldatzea, aldez aurretik kontratazio-organoari jakinarazi gabe.

3.- Kontratistak zerbitzariak edo horiekin lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko baliatu duen eskaintzan adierazi duen/dituen azpikontratista/k ez aldatzea, kontratazio-organoari aldez aurretik jakinarazi gabe.

4.- Kontratazio publikoaren araudian arlo horrekin lotuta aurreikusita dauden guztiak.

12.2.- Ingurumen, gizarte edo lan arloetako beste betebeharrak batzuk:

- Ingurumen arloko betebeharrak: ez.

- Gizarte edo lan arloetako betebeharrak: Langileen soldata-baldintzak betetzea, aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialaren arabera (9/2017 legearen 122.2 artikulua onorioetarako).

13.- ZIGORRAK 9/2017 legeak 192, 193, 194 eta 195 artikuluetan xedatutakoak entrega epeak ez betetzeagatik edota kontratua egokiro ez betetzeagatik.

14.- AZPIKONTRATAZIOA

14.1.- Mugak ipini zaizkio azpikontratatzeko aukerari: Ez da onartuko azpikontratazioa zuzendaritza, plangintza eta koordinazio lanak egiteko.

14.2.- Operadore ekonomikoek honako informazio eta/edo dokumentazio hau emateko daukaten betebeharra:

a) Prestazioaren zein zati azpikontratatu nahi duten adierazi beharra dute.

b) Nahitaez adierazi behar dute azpikontratatu nahi dituzten azpikontratista guztien izena Europako Kontratazio Agiri Bakarraren agirian (II. zatiko A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta).

c) Kontratua gauzatzeko, kontratistak datu pertsonalak tratatu behar baditu tratamenduaren arduradunaren izenean, VI.2 eranskinean adierazi beharko du ea haiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko aurreikusten duen, bai eta azpikontratistaren edo azpikontratisten izena edo enpresa-profila ere

(azpikontratataren edo azpikontratatisten kaudimen-baldintza profesionalaren edo teknikoaren arabera definituta). --

15.- ZERBITZUA EMAN IZANA EGIAZTATZEA, HARRERA ETA BERME-EPEA

15.1.- Prestazioa behar bezala eman dela egiaztatzeko modua: Kontratu-arduradunaren txostena (HABEko edukien arloburua).

15.2.- Prestazioen harrera egiteko epea: Entrega bakoitzaren ondoren, HABEk egindako lanak berrikusiko ditu eta ontzat eman beharko ditu, txosten baten bidez. Azken entrega eta gero, behin-betiko harrera-akta sinatuko da, gehienez ere 30 lan-eguneko epean azken entrega egiten denetik.

15.3.- Harrera partzialak daude: bai, bi entrega daude, plegu administratibo honen 6.3 atalean finkatutako epean entregatu beharko dira. Entrega partzial honen ondoren, ordainketa gauzatu aurretik, HABEk egindako lanak ontzat eman beharko ditu, txosten baten bidez. Horretarako 30 lan-eguneko epea izango dute HABEko teknikariek.

15.4.- Berme-epea: Bai, urtebeteko epea, azken jasotze edo harrera-akta sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

16.- KONTRATUA ALDATZEA. Ez dago aukerarik.

17.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK. Plegu administratibo partikular honetako 12.1 klausulan adierazitako “ kontratuaren funtsezko betebeharra” bete ezean kontratua bertan behera uzteko aukera egongo da (9/2017 legearen 211.1.f) artikulua).

18.- KONTRATUAREN OBJEKTU DEN PRESTAZIOARI BURUZKO KLAUSULA

GEHIGARRIAK: Prestazioaren zati batzuk edo lan zehatz batzuk kontratistak berak egin ditzala eskatuko da (9/2017 legearen 75.4 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera): bai, lanen zuzendaritza eta koordinazio lanak nahitaez kontratistak eramango du. Aldi baterako enpresa-elkartea izanez gero, zati edo lan horiek kide zehatz batek egin beharko dituela ezarri da: bai.

13

II.- ESLEIPEN-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK

19.- ADMINISTRAZIO-ORGANOAK ETA ERREGISTROAK

19.1.- Botere adjudikatzailerak: HABE

19.2.- Organoen identifikazioa.

19.2.1.- Kontratazio-organoa: HABEren zuzendari nagusia

19.2.2.- Organo hartzailea: HABEren zuzendari nagusia
DIR3 kodea:

19.2.3.-Kontratuaren arduraduna: Eskarne Lopetegi Zalakain

19.2.4.- Kontabilitate publikoaren arloko organo eskuduna: Ekonomia Kontroleko Bulegoa

19.2.5.- Kontratazio-zentrala. Kontratua adjudikatzen duen organoak beste entitate batentzat egiten du lan: ez.

19.2.6.- Kontratazio-mahaiaren osaera:

-Mahaiburua: Itziar Azurza Sorrondegui andrea, HABEko Aholkularitza juridiko eta Pertsonalerako arlo-arduraduna (EHAA aldizkari ofizialean 2019/05/14an argitaratutako 2019ko apirilaren 23ko Ogasun eta Finantza sailburuaren Agindua).

-Kontratazio-organoak izendatutako kidea: Eskarne Lopetegi Zalakain andrea, HABEko Metodologia eta Edukien arlo-arduraduna. Ordezkoa: Esther Isasa Gaskue andrea, Metodologia eta Edukien arloko teknikaria.

-Mahaikide-Idazkaria: Gorka Estevan Muguerza jauna, HABEko Aholkularitza juridikoko teknikaria.

19.2.7.- Aditu-batzordea/erakunde tekniko espezializatua: Ez.

19.3.- Esleipen-prozedura izapidetzeaz arduratzen den administrazio-unitatea: HABEko Kudeaketa zerbitzua.

19.4.- Alderdi teknikoei buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua: Eskarne Lopetegi Zalakain andrea.

- helbide elektronikoa: e-lopetegi@habe.eus

- telefono-zenbakia: 943-022612

19.5.- Alderdi juridikoei buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua: Itziar Azurza Sorrondegui andrea.

- helbide elektronikoa: kontratuak@habe.eus

- telefono-zenbakia: 943-022636

19.6.- Alderdi informatikoei buruz edota kontratazio plataformaren funtzionamenduari buruzko zalantzak argitu asmoz, email eta telefono hauek daude eskura:

15

- helbide elektronikoak:

*** laguntzakpe@euskadi.eus**

*** kontratazioa@kontratazioa.eus**

- telefono zenbakiak:

***erabiltzailearen arreta zerbitzua-CAU: 945 016 380**

*** kontratazio plataforma: 945 016 298**

19.6.- Erregistroak:

19.6.1.- Eskaintzak aurkezteko erregistroa: Euskadiko Kontratazio plataforma (www.contratacion.euskadi.eus)

19.6.2.- Ziurtagiriak eta fakturak aurkezteko erregistroa: Faktura eta egiaztagirien kontularitzako erregistroa.

20.- IZAPIDETZA ETA ESLEIPEN-PROZEDURA

16

20.1.- Erregulazio harmonizatuko kontratua: ez.

20.2.- Izapidetza: arrunta.

20.3.- Prozedura: irekia.

20.4.- Sortatan banatzeari buruzko informazioa: Ez.

20.5.- Izapideak egiteko bitartekoak: elektronikoak.

20.6.- Enkante elektronikoa: ez.

20.7.- Gizarte-ekimeneko Enplegu Zentro Bereziatarako eta gizarteratze-enpresetarako erreserbatutako kontratua, edo enplegu babestuko programen barruan dagoena: ez.

20.8.- Gizarte, kultur edo osasun arloko zerbitzu-kontratua izateagatik erakunde jakin batzuetarako erreserbatutako kontratua, SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera: ez.

21.- KAUDIMENA

Lizitatzailleek honako kaudimen hau eduki behar dute:

21.1.-FINANTZA ETA EKONOMIA ARLOKO KAUDIMENA: Erantzunkizun zibileko aseguru arrisku profesionalengatik gutxienez esleitutako kontratuaren prezioaren zenbatekoan.

17

Egiaztatzeko moduak:

Lizitazio unean, adierazpen agiri bat egingo du, azalduz konpromisoa hartuko duela esleipena jasoz gero, aseguru poliza izenpetuko duela eta aurkeztuko duela. Esleipena jasoz gero, izenpetutako eta ordaindutako aseguru kontratuaren poliza originala ekarri beharko du, HABEk kopia konpultsatua egin dezan.

21.2.-KAUDIMEN TEKNIKO-PROFESIONALA.

Azken hiru urtetakoren batean aurrekontuaren % 70eko balioaren pareko lanen bat egin izana eta C1 euskara maila egiaztatzea zuzendariak eta parte hartuko duten 11 aktoreetatik 8k.

Egiaztatzeko modua:

Egindako lanak egiaztatzeko, zerbitzu horien hartzaile edo jasotzaile izan den erakunde pribatu edo publikoaren ziurtagiria, burututako lanak hartu edo jaso izana egiaztatuz eta prestazioen zerrenda zehatza atxikituz, ziurtagiri horri.

21.3.- Sailkapena: Ez da derrigorrezkoa.

21.4.-Prestazioa emateko ardura duten langileen izenak eta prestakuntza profesionalak jakinarazi beharko dituzte pertsona juridikoek: Ez.

22.- ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Esleipen-irizpide asko daude.

22.1.- BALIO-IRITZI batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideak (PROPOSAMEN TEKNIKOAREN ETA PLAGINTZA-MEMORIAREN BALORAZIO IRIZPIDEAK):50 puntu

Plegu teknikoen 5.atalean adierazitako proposamen teknikoa aurkeztu beharko dute. Lehiakideek HABEk emandako gidoi bat oinarri duen A2 mailako ereduazko egoera-bideo bat ekoiztuko dute eta mp4 formatuan aurkeztuko dute. Bideoaren iraupena gutxienez bi minutukoa eta gehienez hiru minutukoa izango da.

Proposamen teknikoa plegu teknikoen 6. atalean zehaztutako irizpideen arabera baloratuko da, honako tauletan ageri diren eran.

Adierazleak	Kontuan hartuko da	Puntuen banaketa	Gutxienekoa
Planoak	Kontaketarako oinarri izatea: Testuinguru orokorra emateko, erreferentziazko elementuak nabarmentzeko...	Puntu 5	2.5 puntu
Egitura eta erritmoa	Irudien sekuentziazioa eta edukien garapena	Puntu 5	3.75 puntu
Iraupena	Egoeraren araberakoa, proportzioak eta neurriak	3.75 Puntu	1,5 puntu
Aktoreak	• Interpretazioa: intentzio komunikatiboa • Lokuzioa • Euskararen ahoskera	10 puntu	8.75 puntu
Lokalizazioa	Gertaera eta gidoiarekin bat egitea	Puntu 5	2,5 puntu
Argiztapena eta soinua	Girotzea Adierazkortasun-maila	Puntu 10	Puntu 5

G23/606 kontratazioa-Plegu administratiboak. 2022ko abendua

	Ulermenerako lagungarria Efektuak, musika...		
Ekoizpena eta estiloa	Alderdi estetikoa, konposizio orokorra, estilo berritzailea, helburu linguistikotik kanpo ere baliagarria izatea	7,5 puntu	6 puntu
Karatula, sintonia eta kredituak	Egokitasuna, estetika eta adierazkortasuna	3,75 puntu	-
GUZTIRA		50,00 puntu	30,00 puntu

**Lizitatzailleek taula horietan ezarritako gutxieneko puntuazioa eskuratu beharko dute
atal bakoitzeko, kontratazio prozeduran aurrera jarraitu ahal izateko.**

22.2.- FORMULAK aplikatuz automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak **ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA “C2” EUSKARA GAITASUN MAILA**: 50 puntu, jarraian adierazitako moduan bereiztua.

A) ESKAINTZA EKONOMIKOA EDO PREZIOA: 49 puntu. Honako formula aplikatuz baloratuko da.

$$\text{Lortutako puntuazioa} = \frac{\text{LOP} - E}{\text{LOP} - E_b} \times 49$$

LOP = lizitazioaren oinarritzko prezioa

E= baloratu beharreko eskaintza

E_b= eskaintza baxuena

Ez dute punturik jasoko oinarritzko aurrekontu parekatzen edo berdintzen duten eskaintzek.

B) C2 EUSKARA GAITASUN MAILAREN ZIURTAGIRIA izatea: puntu 1 (0,5 puntu lan taldeko kide bakoitzaren ziurtagiri bakoitza).

22.3.- ESKAINTZA ANORMALKI BAXUEGIAK

A) Proposamen teknikoa eta plangintza memoriari dagokionez: 22.1. ataleko tauletan jaso den gutxieneko puntuazioa eskuratu beharra dago.

B) Prezioari dagokionez: Eskaintzak anormaltzat joko dira baldin eta adierazitako prezio maximoak %5 baino gehiago jaisten badira, oinarritzko aurrekontuarekiko alderatuz.

23.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK: lehentasunez, desgaitasuna duen pertsonen bat dadute lanean taldean. Bestela, legeak ezarritakoak (9/2017 legearen 147.2 artikulua).

24.- ARTXIBO ELEKTRONIKO BAKOITZEAN ETA KONTRATAZIO PLATAFORMAN IGO EDO AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

Prozeduran parte hartzeko eskatzen diren artxibo elektronikoak **KONTRATAZIO PLATAFORMAKO erlaitz zehatz hauetan** igo edo sartu beharko dira.

24.1.- “GAITASUNA ETA KAUDIMENA” : DEUC-EKAB izeneko agiria aurkeztuko da soilik, II.1 eranskinean ageri den eredua, alegia.

EZ DA BESTE AGIRIRIK SARTU BEHAR BERTAN.

24.2.- “BALIO-IRITZIAK”: Proposamen teknikoa aurkeztuko da soilik.

Plegu teknikoan (2., 5. eta 6. ataletan) azaldutako baldintza zein irizpideen arabera landu beharko da proposamen teknikoa

EZ DA BESTE AGIRIRIK SARTU BEHAR BERTAN.

24.3.- “FORMULAK”: ESKAITZA EKONOMIKOA ETA C2 EUSKARA GAITASUN MAILAREN ZIURTAGIRIA.

III.1 ERANSKINEAN agertzen den eredua betez igo beharko eskaintza ekonomikoa.

C2 Euskara-ziurtagiria pdf formatuan igo beharko da.

EZ DA BESTE AGIRIRIK SARTU BEHAR BERTAN.

25.- ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK.

Esleipena jaso duen lizitatzailleak Plegu administratibo honen 21 atalean aipatutako agiriak aurkeztu beharko ditu derrigorrez.

26.- Prozedurari buruzko klausula gehigarriak: Ez

III.- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK.

24

27.- KONTRATUA LAGATZEA.

SPKLren 98. artikuluan aurreikusita dauden kontratistaren ondorengotzako kasuei eta SPKLren 69.9 artikuluan aurreikusita dagoen ABEEaren osaeraren aldaketako kasuei kalterik egin gabe, honako kasu hauetan laga ahal izango da kontratua:

1. Kontratista kaudimengabezia egoeran dagoenean, uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen 2.2 artikulua araberak, eta oraindik ez badu konkurtsoaren deklarazioa eskatu, eta, betiere, ez badute kaudimengabetzat jo beste prozedura batean.
2. Kontratista konkurtso-egoeran deklaratu denean, nahiz eta likidazio-fasea ireki izan edo konkurtsoa deklaratzeko eskuduna den epaitegiari jakinarazi zaion negoziazioak hasi direla birfinantzaketarako akordio bat erdiesteko edo hitzarmen proposamen aurreratu bati atxikipenak lortzeko akordio bat erdiesteko, konkurtsoari buruzko legerian ezarritako baldintzetan.
3. Kontratista pertsona fisikoa denean eta kontratua amaitu baino lehen erretiroa hartzeko asmoa azaldu duenean.

28.- GIZARTEKO, INGURUMENKO ETA PROZEDURAN ETA KONTRATUAN SARTUTAKO BESTE POLITIKA PUBLIKO BATZUEN INGURUKO ALDERDIEN JARRAIPENA EGITEKO KOADROA.

Alderdiak:	GIZARTEKOAK EDO ENPLEGUARI BURUZKOAK				INGURU MEN ARLOAN	HIZKUNT ZA ARLOAN
	BEREZIKI			BESTE BATZUK		
	Laneratz ea	Emakumee n eta gizonen arteko berdintasun a	Lan- arriskuen prebentzioa			
Kontratuaren objektua						
Kaudimen- betekizunak						
Zehaztapen teknikoak						
Adjudikazio- irizpideak						
Kontratua betearazteko baldintza bereziak		Bai	Bai	Bai (datu pertsonalen babesa)		Bai

29.- - KONFIDENTZIALITASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

29.1- Konfidentzialtasuna.

Kontratua betetzearen ondorioz kontratistak, kontratua betearazteari kontratistak atxikitako pertsonak eta, hala badagokio, azpikontratistek eskuratuko duten informazio guztia konfidentziala izango da, eta sekretu profesionalaren pean egongo da, aplikatu dakioken araudiaren arabera. Hori dela eta, ondo gorde beharko dira eta sekretupean zaindu, eta inola ere ez jakinarazi, ez zatika ez guztiz, kontratuaren parte ez diren pertsona fisiko edo juridikoei, kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik baimenik eman ez badu. Aipatutako pertsona fisiko edo juridikoren batek konfidentzialtasun-eginbehar hori eta, hala badagokio, sekretu profesionalaren eginbeharra urratuz gero, aplikatu dakioken araudiaren arabera, dagozkion erantzukizunak eta kalte-galeren ordainketa eskatuko zaizkio. Kontratuharremana eten ondoren ere bete beharko dira eginbehar horiek. Nolanahi ere, datu pertsonalen tratamendua eskatzen ez duten lanak egitean, debekatuta egongo da datu horietarako irispidea izatea, eta sekretupean gorde beharko dira jakin ahal diren datuak.

29.2.- Datu pertsonalen tratamendua.

Datu pertsonalen tratamendutzat ulertzen da datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilita zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak erkatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea. Horrek esan nahi du kontratista izango dela tratamendu-

eragilea, eta unean-unean indarrean den araudia bete beharko duela, datu pertsonalak behar bezala tratatuz eta babestuz, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hogeita bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera. Baldin eta kontratistak beste helbururen batekin erabiliko balitu datuak, edo kontratuan edo indarrean den araudian ezarrita dagoena bete gabe jakinarazi edo erabiliko balitu, tratamenduaren organo arduraduntzat hartuko litzateke kontratista ere, eta gaizki egindako arau-hausteen erantzule izango da. Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean zehatz dago deskribatuta zein datu pertsonal babestu behar den, bai eta kontratistak zein tratamendu egin eta zein neurri ezarri behar dituen. Baldin eta, kontratuaren betearazpenaren ondorioz, «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean ezarritakoa aldatu behar izango balitz momenturen batean, arrazoiak emanda eskatu beharko du kontratistak, eta zein aldaketa egin nahi duen zehaztu. Tratamenduaren arduraduna ados egongo balitz eskatutakoarekin, «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskin eguneratu bat egingo du, eta bertan zehatz bildu beharko da egin behar den tratamendua

29.3.- Tratamendu-eragilearen estipulazioak.

Klausula honetako betebeharrak eta baldintza-agiri hauetako «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskina dira, izan ere, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (aurrerantzean DBEO) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 28.3 artikuluan eskatzen den tratamenduaren enkargukontratua, tratamenduaren organo arduradunaren eta kontratistaren artean sinatuko dena tratamendu-eragile gisa jarduten duenean.

G23/606 kontratazioa-Plegu administratiboak. 2022ko abendua

Baldintza-agiri honetan eta gainerako kontratu-dokumentuetan aurreikusi bezala ordainduko dira betebeharrak horiek betetzeko egin behar diren prestazioak; era berean, zerbitzu-kontratu honen iraupen bera izango dute eta, luzatzekotan, kontratuaren epe berberetan luzatuko dira. Hala eta guztiz ere, kontratua amaitzean, indarrean jarraituko du sekretu-eginbeharrak, denbora-mugarik gabe, betearazpenean zerikusia duten pertsona guztientzat. Kontratu honen objektua betetzeko, ez da beharrezkoa izango kontratistak tratamenduaren organo arduradunaren erantzukizun den beste datu pertsonal batzuetarako irispiderik izatea; horrenbestez, ez du baimenik izango «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean zehaztuta ez dauden beste datu pertsonal batzuetarako irispidea izan edo tratatzeko.

28

Baldin eta kontratua betearazi bitartean gorabeheraren bat gertatuko balitz eta, ondorioz, tratamenduaren organo arduradunaren erantzukizunpekoak diren datu pertsonaletarako irispidea izango balitz (ustekabea edo oharkabea) «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean aipatu ez den moduren batean, kontratistak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio tratamenduaren organo arduradunari, zehatzago esanda datuak babesteko ordezkariari, gehienez 72 orduko epean.

Kontratistak konpromisoa hartzen du jarraian zerrendatuko diren betebeharrak betetzeko, «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean zehaztutakoarekin osatuta, DBEOren 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Hona hemen:

a) Baldintza-agiri honetan eta kontratua betearazteko aplikatu behar diren gainerako kontratu-dokumentuetan dokumentatuta dauden jarraibideen arabera tratatuko ditu datu pertsonalak, bai eta tratamenduaren arduradunak unean-unean emango dizkion jarraibideen arabera ere, horrelakorik balego. Kontratistak berehala jakinaraziko dio

G23/606 kontratazioa-Plegu administratiboak. 2022ko abendua

tratamenduaren arduradunari baldin eta, bere ustez, jarraibideren bat ez badator bat unean-unean aplikatu behar den datu pertsonalen babesari buruzko araudiarekin.

29

b) Datu pertsonalak ez ditu erabili edo aplikatuko kontratuaren objektua betearaztea ez den beste helbururen batekin.

c) Segurtasun-irizpideei eta DBEOren 32. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz tratatuko ditu datu pertsonalak; era berean, eskuratu ahal izango dituen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna bermatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren segurtasuneko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartuko ditu. Bereziki, eta mugarik gabe, hitzematen du «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean zehaztu diren arrisku-maila eta segurtasuna babesteko neurriak hartuko dituela.

d) Erabateko konfidentzialtasuna mantenduko du kontratua betearazteko eskuratu ahal izango dituen datu pertsonalei buruz, bai eta datuen tratamendutik eskuratuko ditueni buruz ere, kontuan hartu gabe zein euskarritan jaso dituen datuok. Betebehar hori zabaldu egingo da kontratistaren kontura datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan parte har lezakeen pertsona guztietara. Kontratistak esan beharko die mendeko pertsona horiei sekretu-eginbeharra bete behar dutela, eta zerbitzua ematen amaitu ondoren edo bertatik bereizi ondoren ere mantendu beharko dela eginbehar hori.

e) Baldintza-agiri honen objektu diren datu pertsonalak tratatzeko baimena izango duten pertsonen zerrenda egin beharko du. Halaber, bermatu egin beharko du pertsona horiek konpromisoa hartzen dutela, beren-beregi eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko edo bidezko segurtasun-neurriak betetzeko, behar bezala jakinarazi beharko zaizkiela. Gainera, tratamenduaren arduradunaren eskura izango ditu egiaztatagiri horiek.

f) Bermatu egingo du datu pertsonalen babesari buruzko beharrezko prestakuntza emango diela datuok tratatzeko baimena duten pertsonen.

g) Datu pertsonalak ez dizkie hirugarrenei lagako (komunikatuko), ez eta kontserbatzeko ere; salbuespena izango da tratamenduaren arduradunaren aurretiazko eta berenberegiko baimena izaten bada kasu bakoitzean.

h) Datuak babesteko ordezkaria izendatu beharko du, baldin eta DBEOren arabera beharrezkoa bada edo borondatez hala erabakitzen bada, eta izendapen horren berri eman beharko dio tratamenduaren arduradunari, baita datu pertsonalak babesteko kontratistak ordezkari gisa izendatu d(itu)en pertsona fisikoa(k) nor d(ir)en eta harekin/haiekin harremanetan ipintzeko datuak ere (tratamendu-eragilearen ordezkariak), datu pertsonalen tratamenduari buruzko araudia betetzeko arduraduna(k) izango d(ir)ela alderdi legal, formal eta segurtasunekoetan.

i) Zein datu pertsonaletarako irispidea izan duen, kontratistak tratamenduaren ondorioz zein datu pertsonal sortu duen, datu horiek zein euskarri edo dokumentutan dauden, baldintza-agiri honen objektu den kontratu-prestazioa amaitu ondoren datu eta euskarri horiek itzuli edo suntsitu beharko ditu, «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean islatu den tratamenduaren organo arduradunak erabakitakoaren arabera. Ezin izango dira suntsitu baldin eta legez edo Europako Erkidegoko zuzenbideko arauen baten ondorioz kontserbatzeko baimena edo agindua ematen bada. Hala ere, tratamendu-eragileak datu pertsonalak kontserbatu ahal izango ditu tratamenduaren organo arduradunarekin izandako harremanetik erantzukizunak erator litezkeen bitartean. Horrelakoetan, blokeatuta eta ahalik eta denborarik

G23/606 kontratazioa-Plegu administratiboak. 2022ko abendua

laburrenean kontserbatuko ditu datu pertsonalak, eta modu seguruan eta behin betiko sunsituko ditu epe hori amaitzean.

31

j) «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean zehaztu diren tratamenduaren sistema eta gailuetan (eskuzkoak zein automatizatuak) eta lekuetan egin beharko du datu pertsonalen tratamendua. Ekipamendu hori tratamenduaren organo arduradunaren kontrolpean egon liteke, edo kontratistaren zuzeneko edo zeharkako kontrolaren pean, edo tratamenduaren organo arduradunak aurretiaz eta idatziz beren-beregi baimendu dituen beste batzuen kontrolpean, aipatutako eranskinean ezarritakoaren arabera, eta beti kontratuaren objektua betearazteko esleitutako erabiltzaile edo profilei dagokienez.

k) Europako Esparru Ekonomikoaren barruan edo aplikatu daitekeen araudiaren arabera segurtasun baliokidea duen beste esparruren batean tratatu beharko ditu datu pertsonalak, eta ez ditu esparru horietatik kanpo tratatuko ez zuzenean ez baimendutako azpikontratisten bitartez, baldintza-agiri honetan edo gainerako kontratudokumentuetan ezarritakoaren arabera. Hala ere, salbuespena izango da baldin eta Europar Batasuneko zuzenbidearen arabera edo aplikatu behar duen estatu kideko zuzenbidearen arabera nahitaez egin behar badu, baldin eta «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean bestelakorik adierazten bada edo baldin eta tratamenduaren organo arduradunak beren-beregi hala agintzen badu. Baldin eta zuzenbide nazionalaren ondorioz edo Europar Batasuneko zuzenbidearen ondorioz kontratistak nahitaez egin behar badu nazioarteko datu-transferentziaren bat, idatziz emango dio tratamenduaren organo arduradunari legezko betebeharrak berri tratamendua egin baino lehen (behar besteko aurrerapenaz), eta bermatu egingo du tratamenduaren organo arduradunari aplikatzekoak diren legezko betekizun guztiak beteko direla, salbuespena

izango dela baldin eta aplikatu behar den zuzenbideak debekatzen badu interes publikoko arrazoi garrantzitsuen ondorioz.

l) Baldin eta bere erantzukizunpekoak diren datu pertsonalen segurtasuna moduren batean urratzen bada eta horren berri badu, berehala eta arretaz jakinarazi beharko dio tratamenduaren organo arduradunari, gehienez 72 orduko epean. Gainera, gorabeheraren inguruko dokumentazioan eta komunikazioan eragina izan dezakeen informazio oro helaraziko dio. Gauza bera egin beharko du baldin eta hutsegiteren bat gertatu bada informazioa tratatu eta kudeatzeko duen sisteman, arriskuan ipintzen badu datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna, edo konfidentzialtasuna urratu ahal izan bada, kontratua betearazi bitartean eskuratutako datu eta informazioak hirugarren pertsonen esku ipintzearen ondorioz, zein interesdun zehatzen konfidentzialtasuna galdu den ere zehaztuz. Hori guztia DBEOren 33. artikulua araberako egingo da.

m) Ahalik eta lasterren jakinaraziko dio tratamenduaren organo arduradunari interesdunen batek dagokion eskubideren bat erabiltzen badu bere aurrean (datuak irispidean izateko eskubidea, datuak zuzentzeko edo ezabatzeko eskubideak, datuen aurka egiteko eskubidea, datuen tratamendua mugatzeko eskubidea eta datu pertsonalen eramangarritasun-eskubidea; edo aplikatu beharreko araudiak aitortutako beste edozein eskubide; edo erabaki indibidual automatizatuen objektu ez izateko eskubidea). Berehala jakinarazi beharko da hori, eskubidea erabiltzeko eskubidea jaso eta hurrengo lanegunean beranduenez. Jakinarazpenarekin batera, froga bidez identifikatu beharko da eskubidea erabili nahi duen pertsona, eta, hala badagokio, dokumentazioa eta eskubide hori ebazteko garrantzitsua izan litekeen bestelako informazioa ere gehitu beharko da. Ahal den guztietan, laguntza emango dio tratamenduaren organo arduradunari, dagokiona bete eta eskubidea erabiltzen duen

G23/606 kontratazioa-Plegu administratiboak. 2022ko abendua

pertsonari erantzun ahal izateko. Zerbitzu-kontratuen administrazio-klausula partikularren agiria Prozedura irekia 44 Esp. zk.:

33

n) Tratamenduaren organo arduradunarekin batera egingo du lan segurtasun-neurrien arloan dituzten betebeharrak betetzeko, segurtasun-neurrien arrakalak (lortutakoak eta saiatutakoak) agintaritza eskudunei edo pertsona interesdunei komunikatu eta/edo jakinarazteko eta datu pertsonalen babesaren eta horri buruz agintaritza eskudunei egindako aurretiko kontsulten eragin-ebaluazioak egiteko, eskura duen informazioa eta tratamenduaren izaera kontuan hartuta. Era berean, tratamenduaren organo arduradunaren esku ipiniko du, hala eskatzen dionean, baldintza-agiri honetan eta gainerako kontratu-dokumentuetan aurreikusitako betebeharrak betetzen dituela egiaztatze behar den informazio guztia, eta lankidetzan arituko da tratamenduaren organo arduradunak, hala badagokio, egingo dituen auditoretza eta ikuskapenetan.

ñ) Idatziz eraman beharko du, baita formatu elektronikoan eta DBEOren 30.5 artikuluan islatutako kasuetan ere, tratamenduaren organo arduradunak egin dituen tratamendujardueren kategoria guztien erregistro bat, eta DBEOren 30.2 artikuluan aipatzen diren inguruabarrak agertu beharko dira gutxienez bertan.

o) Datu pertsonalak babesteko araudia eta erantzukizun aktiboaren eginbeharra betetzen duela egiaztatzen duten ebidentziak izatea, esaterako betetze-mailaren edo auditoretzen emaitzen aurretiko ziurtagiriak, eta tratamenduaren organo arduradunaren esku ipini hala eskatzen dizkionean. Halaber, kontratua indarrean egon bitartean, tratamenduaren organo arduradunaren esku ipiniko du unean-unean egindako informazio, ziurtapen eta auditoretza oro.

p) Egingo diren datuen tratamenduei buruzko informazioa eman beharko dio tratamenduaren organo arduradunari, biltzeko unean. Datuak biltzen hasi baino lehen, tratamenduaren organo arduradunarekin adostu beharko da nola idatziko den eta zein formatutan emango den informazioa.

29.4.- Azpikontratazioekin lotutako tratamendu azpi-enkarguak.

Kontratuaren arabera azpikontratazioa egin daitekeenean, kontratua betearazteko azpikontratatu den kontratistak datu pertsonaletarako irispidea izango badu, asmo horren berri eman beharko zaio tratamenduaren organo arduradunari, eta datu pertsonalen nolako tratamendua egingo den identifikatu beharko da, horretarako baimena ematen duen ala ez erabaki ahal izan dezan tratamenduaren organo arduradunak. Nolanahi ere, bi baldintza hauek nahitaez bete beharko dira tratamenduaren organo arduradunak, hala erabakitzen badu, baimena eman ahal izan dezan: 1. Azpikontratatistak egingo duen datu pertsonalen tratamendua bat etorri dadila indarrean diren legeekin, baldintza-agiri honetan ezarritakoarekin eta tratamenduaren organo arduradunak emandako jarraibideekin. 2. Kontratistak eta azpikontratistak datu pertsonalen tratamenduaren enkargu-kontratu bat egin dezatela, baldintza-agiri honetan aurreikusitako zehaztapenak edo murriztaileagoak erabiliz; tratamenduaren organo arduradunaren esku ipiniko da, hala eskatzen duenean, kontratua egin dela ziurtatzeko eta bertako edukia egiaztatzeko. Kontratistak aldaketaren bat egin eta beste azpikontratista batzuk sartu edo ordeztu nahi baditu, modu berean jardun beharko du. Bada, tratamenduaren organo arduradunak kontuan izan beharko du elkarrekin lotutako bi baldintzak bete beharko direla, hala badagokio, aldaketa horiek baimendu ahal izan ditzan. Baimenik eman ez dela ondorioztatuko da baldin eta kontratistak ez badu baimenaren jakinarazpenik jasotzen 5 eguneko epean, kontratistak emandako informazioa tratamenduaren organo arduradunak jasotzen duenetik aurrera.

G23/606 kontratazioa-Plegu administratiboak. 2022ko abendua

Kontratuaren arabera azpikontratazioa egin daitekeenean, kontratua betearazteko azpikontratatu den kontratistak datu pertsonaletarako irispidea izango badu, asmo horren berri eman beharko zaio tratamenduaren organo arduradunari, eta datu pertsonalen nolako tratamendua egingo den identifikatu beharko da, horretarako baimena ematen duen ala ez erabaki ahal izan dezan tratamenduaren organo arduradunak. Nolanahi ere, bi baldintza hauek nahitaez bete beharko dira tratamenduaren organo arduradunak, hala erabakitzen badu, baimena eman ahal izan dezan:

1. Azpikontratistak egingo duen datu pertsonalen tratamendua bat etorri dadila indarrean diren legeekin, baldintza-agiri honetan ezarritakoarekin eta tratamenduaren organo arduradunak emandako jarraibideekin.
2. Kontratistak eta azpikontratistak datu pertsonalen tratamenduaren enkargu-kontratu bat egin dezatela, baldintza-agiri honetan aurreikusitako zehaztapenak edo murriztaileagoak erabiliz; tratamenduaren organo arduradunaren esku ipiniko da, hala eskatzen duenean, kontratua egin dela ziurtatzeko eta bertako edukia egiaztatzeko.

Kontratistak aldaketaren bat egin eta beste azpikontratista batzuk sartu edo ordeztu nahi baditu, modu berean jardun beharko du. Bada, tratamenduaren organo arduradunak kontuan izan beharko du elkarrekin lotutako bi baldintzak bete beharko direla, hala badagokio, aldaketa horiek baimendu ahal izan ditzan. Baimenik eman ez dela ondorioztatuko da baldin eta kontratistak ez badu baimenaren jakinarazpenik jasotzen 5 eguneko epean, kontratistak emandako informazioa tratamenduaren organo arduradunak jasotzen duenetik aurrera.

30.- KONTRATUAREN ERREGIMEN JURIDIKOA. ARAUDI EZARGARRIA

Kontratu-dokumentuetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako arau hauek bete beharko ditu kontratuak:

9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL).

Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO), SPKLn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.

817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena, SPKLn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.

116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoa, SPKLn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.

Agindua, 2004ko abuztuaren 16koa, Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuarena, herri administrazioen kontratuen legedian jasotako zenbait prozeduren eta jarduketan izapidetze telematikoari buruzkoa.

Otsailaren 18ko 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta 42/2019 EBAZPENA, apirilaren 9koa, Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez honako erabaki hau argitara ematen baita: soldata-arrakalaren aurkako neurriak eta gizonek eta emakumeek ordainsari bera jasotzeko klausulak kontratazio publikoan sartzeko jarraibidea onartzen duen erabakia. Estatu mailako nahiz Euskal Autonomia Erkidegoaren mailako kontratazioa arautzen duten beste xedapen guztiak, aplikatzekoak badira.

Osagarri gisa, administrazio-zuzenbidearen gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ez badago, zuzenbide pribatuko arauak.

G23/606 kontratazioa-Plegu administratiboak. 2022ko abendua

Aldeek beren-beregi bete beharko dute kontratu-dokumentuetan ezarrita dagoena. Dokumentu horietan ezarrita zer dagoen ez jakiteak ez du kontratista salbuetsiko ezarrita dagoen hori betetzeko beharretik, eta eskaintza aurkezteak esan nahi du lizitatzailleak baldintzarik gabe onartzen dituela klausula guztiak, inolako salbuespen edo eragozpenik gabe.

37

31. AURREIKUSITAKO EGUTEGIA

- .- 2022ko abenduak 21: Kontratazio plataforman iragarpena
- .-2023ko otsailak 13: eskaintzak aurkezteko azken eguna (09:59 arte).
- .-2023ko otsailak 13: gaitasun eta kaudimen erlaitzaren irekieta (10:00)
- .-2023ko otsailak 16: proposamen teknikoaren erlaitza irekitzea (9:00)
- .- 2023ko otsailak 23: Formulak erlaitzaren irekiera (13:00)

Donostian, 2022ko abendua.